

OARRAK

BIZITZARAKO AOLKUAK

ITZI JOATEN

Begira, Josue, ez egiozu iruzur egin zeure buruari, ez gelditu eguzkia; itzi orduai ariñeketan joaten, ordu bakoitza azkena da-ta.

Baita burrukan egiten da gauaz be: Lotan zalantzak izaten dira eta ilteko orduan be bizi gara. Ez dago itaunik erantzun barik: "Ezin zeintekeze joan Ni noan tokira" (Jn. 8, 22) esan eutson gizataldeari Jesus'ek eta Juda'tarrak esan eben: "Bere burua ilgo ete dau". Ez dau Egilleak bere burua ilgo ez eta eguzkia amatau be, bere argia lurrean obirutzen dau, onen erraiak argitaratzen dauzala. Itzi, Josue, gauak seaskearen bakea ekarri dagiala, biar beste egun bat izango da.

ARAGIAN ALA GOGOAN?

Maitasuna: Zorionekoa izan naiteke sendiaren eta lagunuen maitasunari garrantzi ta ardura geiago emoten ba'dautset.

Lana: Zoriontsua izan naiteke neure zeregiñak ondoen egiteagaz poza artu ezkeru.

Balioak: Zorionekoa izan naiteke garaille diranen norgeiagoetan ibilli baiño neure buruari ta nortasunari arre ta ardurea emotea lenago artu ezkeru.

Onartzea: Zoriontsua izan naiteke nire eskuetan ez dagoanari garrantzirik emoten ez ba' dausat.

Bardintzea: Poztu egin naiteke bizitza-dendunean, eztabaidan, zalantzetan, lanean, atsedenean, olgetan eta otoitzean neure burua bardinduko ba'neu (Unamuno'ren pentsabideak).

BEGOÑA'KO ANDRA MARI

Begoña'ko Andra Maria'ren irudiari buruz barri laburak emon-guraz nator.

Bizkai'ko seme-alaba askoren gogoko izango dirala koan nago eta Bizkai'ko Zaindari dogun Amaren iruditik asten naz.

Irudi onek, Artagan tontortxuan, Bilbo azpian dala, eta Begoña ko eleizeren babespean, antxiña-antxiñatik dauko bere santutegitxua.

Bilbo erri lez sortu zanetik daukagu irudi ori, gitxi gora-bera.

Ez dakigu non eta nok egiña edo taiutua dan. Bizkai-barruan egiña ete da?

Daukan itxuratik, ara zer atera geinken: Bizkaia'n, Gipuzkoa'n eta inguruetan zabal aurkitzen diran antxiña bateko, Erdi-Aroko, irudien egitura ta antza daukazela. Egitura bereko irudi asko dira gure inguruan: Bizkaia'n Zaldibar'eko Gatzaga'n, Derio'n, Busturiko San Kristobal'en, Arantzazu'ko Justo eta Pastor Santuen eleizan, Arrieta'ko Jainko'n, Fika'n eta Lamindano'n. Eta Gipuzkoa'n Zarautz'ko Andra Mari, Asteasu'ko Kurutze Deunaren eleizakoa, Getaria'ko San Prudentzio eleizakoa Aizkorriko San Adrian'goa eta Lazkao'koa... Ez doguz diran guztiak aitatu. Aita Lizarralde'k olako irudi guztiak "aizta bikoitxak" izena ezarten dautse.

Guztion artean erti-balio ta ederrez, ederrenetarikoa da Begoña'ko Ama'rena.

Lenengo begirakadan, olango irudia orduan baserria zan Begoña'ko erri txikian amalagarren gizaldiaren asieratik agertzea sinisgaitx egiten jaku, baiña ez dogu aitzu bear Eleiza orren Jabe eta patroiz Bizkai'ko Jauna zala. Ortik etorri leikegu argibide bat. Begoña k bere eleizea eukan jaun orren ardurapean eta jaun onek artzen ebazan Begoña ko Eleizearen eta Bilbo'ko Santiago'ren eleizearen amarrenak. Don Diego edo onen aurretikoan bat ez ete zan izan Begoña ko Ama'ren irudi ain ederra emon ebana?

Erantzunik emon-eziñean ba'gagoz be, ez dauku asko ardura. Zer-ikusi aundiagoa dau irudi onen edertasunak eta ez Begoña'n eta Bilbo'n bakarrik, Bizkai'ko semeen biotzetan beronek artu dauan indar eta garrantziak.

Andres MAÑARIKUA'ren
"Santa Maria de Begoña" liburutik
euskeratua.

LETONA